ENKARTERRIETAKO MUSEOAREN ZERBITZUAK KONTRATETAKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. XEDEA

Enkarterrietako Museoaren (Abellaneda) antolaketa-, arreta-, erakusketa- eta ustiapen-lanak, bai eta Museoaren ondarea konserbetako, konpontzeko eta handitzeko lanak be.

2. MUSEOAREN HELBURUAK ETA JARDUERAK

Helburu nagusia da Enkarterriko Museoaren antolaketa-, arreta- eta erakusketa-zerbitzua emotea, Museoa kultura-zentro bizia eta dinamikoa izan daiten, testuinguru geografiko, sozial eta turistiko jakin baten buztartua, alde batera itxi barik Museoaren ondarea konserbetako, konpontzeko eta handitzeko lanak egitea, jarduera osogarri lez.

2.1. Museoak nahitaez bete behar dituan eginkizunak eta misinoak honako honeek dira:

a) Zabalkunde-, ikerketa-, hezkuntza- eta gizarte-eginkizunak, Museo barrukoak zein gizarteari begirakoak, alkarren lankidetzan, gune dinamizatzaile bilakatzeko. Eginkizunen artean ditu, besteak beste, aldi baterako erakusketak antolatzea, argitalpenak egitea, liburutegi- eta bideoteka-zerbitzua antolatzea —horretarako bibliografia-funtsak eskuratzeko eta eguneratzeko politika aktiboa ezarriz— eta kultura-ekintzak eta -jarduerak sustatzea, beste zentro, erakunde eta abarrakazko hartu emonak sustatuz.

b) Herrialdearen eta, batez be, Enkarterriren ondare historikoa eta kulturala konserbetako eta berreskuratzeko eginkizuna, zaharbarritze-politikea barne.

2.2. Misino biak era orekatuan buztartu eta garatu behar dira. **Balorau egingo dira** misino bakotxaren politika orokorraren planteamentua, bete beharreko helburuak eta programaz programa proposatutako jarduketa zehatzak. Museoak eztabaida- eta truke-foroa izan behar dau, profesionalei eta espezialistei begira eta, batez be, herritarrei begira, Enkarterrirentzat eta Bizkai osoarentzat interesa daben historia-gaiei eta beste kultura-gai batzuei jagokenez.

2.3. Bereziki garrantzitsua da Museoak komunikatzaile lez dauen zeregina indartzeak. Halanda ze, beharrezkoa da horrek eskatzen dituan teknikak ezagutzea: erakusketa-teknikak, zeinuen zientzia, marketina, komunikazinoaren teknologiak, etab.

2.4. Lan horreek azkar eta eraginkortasunez egin ahal izateko, beharrezkoa da giza talde malgua eta operatiboa izatea. Horretarako, bada, zehaztu egin beharko dira organigramea eta giza baliabideak, bai eta horreek artikuletako erea be.

3. MUSEOAREN ANTOLAKETA-, ARRETA-, ERAKUSKETA- ETA USTIAPEN-LANEN PROIEKTUA

Interesdunek antolaketa-, arreta-, erakusketa- eta ustiapen-lanen proiektua aurkeztu beharko dabe. Proiektu horrek, gitxienez, hiru urteko iraupena izango dau, eta urterik urte luzatu ahal izango da, urte bi, gehienez. Bertan, helburuak eta horreek lortzeko bitartekoak ezarriko dira, kontratuaren prezioaren barruan.

3.1. Proiektuaren **helburua** bikotxa izango da: alde batetik, lizitatzaileak dokumentu horrexen bitartez azalduko deutse Batzar Nagusiei ze ikusmolde daukan Museorako eta ze ereduren arabera gauzatuko dauen Museoaren antolaketea, arretea eta ustiapena. Proiektua zenbat eta argigarriagoa izan, hainbat eta zehaztasun handiagoa izango dabe Batzar Nagusiek eretxi bat izateko. Beste alde batetik, Bizkaiko Batzar Nagusiei oinarrizko dokumentutzat balioko deutse esleipendunak kontratua beteten dauela kontroletako, ondorio guztietarako kontratu-dokumentua izango da-eta, kontratuaren administrazino-klausula partikularren agiriaren karatulan adierazoten dan lez.

3.2 Proiektuaren **edukian** xehetasunez garatu beharko dira, gitxienez, esleipenerako erespide lez baloretan diran alderdi honeek:

3.2.A- ALDI BATERAKO ERAKUSKETEN EGITARAUA

3.2.A.1- Balorauko dan aldi baterako erakusketen egitarauan zehaztu egin beharko dira landuko diran gaiak, edukiak eta iraupena. Horretarako, urtean, gitxienez, erakusketa bi eskaini beharko dira, Enkarterriko historiari, antropologiari, ondareari eta arteari buruzko ezagutza zabaltzeko, etapa historikoak kontuan hartuta. Erakusketa horreen aurkezpenean justifikatu egin beharko da gaiak interesgarriak dirala eta zehaztu egin beharko da gaiak zelan garatuko diran. Gaien zerrenda hutsa ez da nahikoa izango.

Halanda ze, **balorau egingo da** gaien barritasuna edo Enkarterriko historiaren, antropologiaren eta abarren ezagutzari egiten deutsien ekarpena, bai eta erakusketearen gaiakaz lotutako pertsonen eta ikertzaileen aholkularitza izatea be.

3.2.A.2- Erakusketea dinamizatzera eta sustatzera bideratutako kultura- eta hedapen-jarduerak sortzea **balorauko da**, baita lantzen daben gaia be.

3.2.A.3- Aldi baterako erakusketa gehiago antolatzea **balorauko da**, beti be kontratuaren prezioaren barruan sartzen badira.

3.2.B- JARDUERA DIDAKTIKO ETA PEDAGOGIKOEN EGITARAUA

3.2.B.1- Jarduera didaktiko eta pedagogikoen egitarauan **balorauko da** Enkarterriko historiaren, etnografiaren, ondarearen eta abarren ganeko ezagutza sustatzeko jarduera didaktiko eta pedagogikoen programea atontzea, Enkarterriko, Bizkaiko zein parte hartu gura dauen edonongo ikastetxeei zuzendua.

Programa didaktikoak euskal hezkuntza-sisteman dagozan hezkuntza-zikloak hartu beharko ditu kontuan –haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta batxilergoa –, eta ikasturte osoan emon beharko da.

Ikasturte bakotxean gitxienez 6 jarduera gauzatu beharko dira, eta gaiak, edukiak eta iraupena zehaztu beharko dira. Ahal dan neurrian, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ezarritako eskola curriculumera egokituta egon beharko dabe.

3.2.B.2- **Balorauko da,** era berean, museoaz kanpoko jarduera didaktiko eta pedagogikoak antolatzea, ikasleen artean Enkarterriko historia, artea, etnografia eta abarren ezagutza sustatzeko.

3.2.C- KULTURA-JARDUERAK

3.2.C.1- Era berean, honako honeek **balorauko dira**: gai-eremuaren eta eremu geografikoaren arabera erakargarriak diran kultura-jarduerak egitea Museoan, bai eta barruko jarduerak (Museoan bertan egindakoak) eta Museotik kanpokoak (Museoa elementu nagusi lez hartuta, Museoaren hurreko eremu geografikoan egindakoak) egitea be. Jarduera horreen artean honako honeek aitatu leitekez: ibilbide gidatuak, ibilaldiak, jardunaldietan parte hartzea eta Bizkaiko kultura-erakundeakaz batera egindako bisita kulturalak.

3.2.C.2- Museora desgaituak erakarteko jarduerak egitea edo Museoak antolatutako ahalik eta jarduera gehienetan parte hartu daien lortzeko jarduerak egokitzea **balorauko da**.

3.2.D- IKERKETEA

Ikerketa-egitaraua **balorauko da**. Egitarau horretan landuko diran gaiak eta edukiak zehaztuko dira. Urtean gitxienez ikerketa-lan bat egingo da, Enkarterriko, Bizkaiko eta, oro har, euskal munduko gaien barritasuna eta zientzia- eta eduki-ekarpenak kontuan izanda.

3.2.E- ONDAREA

Baldintza-agiri honen 4. apartatuan zehazten dan moduan, Museoaren ondarea –eta, beraz, erakusketa iraunkorra be– konserbetako, konpontzeko, handitzeko, hobetzeko eta barritzeko programa espezifikoa **balorauko da.**

3.2.F- ARGITALPENAK

Argitalpenen egitaraua **balorauko da**, Enkarterriaz, Bizkaiaz eta, oro har, euskal munduaz egin beharreko erakusketakaz eta ikerketakaz lotutako gaiak eta edukiak zehazturik.

3.2.G- ESLEIPENDUNAREN KONTURAKO BESTE HOBEKUNTZA BATZUK

Esleipendunaren kontura izango diran hobekuntzak aurkeztea **balorauko da**.

Hobekuntza horreek garatuta egon beharko dabe: ideien zerrenda hutsa ez da nahikoa izango. Horretarako, beharrezkotzat joten diran epigrafeetan garatutako proposamena aurkeztu beharko da.

3.3- PROIEKTUAREN BESTE ALDERDI OROKOR BATZUK

Jarraipen estatistikoa egingo da hileko bisitari kopuruaren eta euren gitxi gorabeherako jatorri geografiko eta sektorialaren arabera eta bisitek egindako iradokizunak jasoko dira, horren guztiaren helburua izanik museoa eta erakusketa-aretoa bisitetan daben pertsonen tipologia identifiketea eta zer eskatzen daben ezagutzea, kudeaketan etenbako hobekuntzea lortze aldera.

Kudeaketa ekonomikorako eta kultura-errentagarritasunerako proposamena aurkeztuko da, Museoa «kultura-enpresa» lez konfiguratuko dauena. Horretarako,

kultura-ekintzaren hartzaileak nortzuk izango diran aztertu behar da, baliabideen banaketa orekatuari begira, plangintza eraginkorragoa izan daiten.

Erakunde esleipendunaren proiektuan proposatutako jarduera bakotxak Batzar Nagusien oneretxia euki beharko dau gauzatzen hasteko eta garatzen jarraitzeko. Era berean, Batzar Nagusiek jarduerearen baldintzak aldatu ahal izango ditue, halan baderitxe.

4. MUSEOAREN ONDAREA KONSERBETEA ETA KONPONTZEA, ETA ONDASUNAK ESKURATZEA

4.1.1- Museoaren ondarea konserbetea eta konpontzea

4.1.1- Epigrafe honetan aitatzen dan jarduera-esparruan, Museoak sustatutako lana **balorauko da**, batez be, jarraian zehazten diran azterketa-eremu biotan:

a) Espazio- edo geografia-eremua: Museoaren eraginpeko kultura-eremutzat hartuko dira, Enkarterriko historiari jagokon guztian: Bizkaiko Golkoaren eremu osoa; Enkarterri, jatorrizko nukleo lez; Bizkaia eta bere hartu-emonak; eta inguruko lurralde eta autonomia-erkidegoak. Hori halan izanda, lehentasuna eta garrantzi handiagoa emongo jake Euskal Herriari buruzko lanei, batez be, Bizkaian zentrautakoei.

b) Gai-eremua: Museoaren izaereari jagokozan gaiak izango dira, askotarikoak. Eskualdeko eta inguruko historian oinarrituko dira, batik bat, bai eta horregaz lotutako giza jardueran be. Halanda ze, bere historiagaz, etnografiagaz, geografiagaz eta abarregaz lotzen diran lanak izango dira, eta lehentasuna emongo jake Museoak berak egindako lanen ondorioz sortzen diran alderdi ezezagunei.

4.1.2- Museoaren Zuzendaritzak interesgarritzat joten dituan beste eremu batzuetara zabaldu ahal izango da Museoaren gai-eremu nagusia, Bizkaiko Batzar Nagusiakaz bat etorriz.

4.1.3- Era berean, beste jarduera batzuen artean, beste erakunde batzuetako bekadunek eta doktoregaiek Museoaren berezko eremuagaz lotutako lanak egitea sustatu edo erraztu ahal izango da.

4.2- Ondasunak eskuratzea

Museoaren funtsetarako materialak (erosketa, dohaintza, gordailu, legatu eta abarren bidez) eskuratzeko plangintzak alderdi bi hartu beharko ditu kontuan, ekimena nondik datorren kontuan hartuta:

a) Planifikautako bilaketea bada. Atal honetan, Museoaren talde antolatzaileak abiarazotako ekimenak planteetan dira. Holangoetan, helburua izaten da ondasunak aldez aurretik ezarritako ordena baten arabera eskuratzea. Horretarako, eskuratu daitekezan elementuen zerrendea sakon ezagutu behar da aldez aurretik. Horregaitik, inbentarioa egingo da Museoarentzat interesgarriak diran funtsak hautatzeko, eta eskuratze-faseen arabera antolatu ahal izango da.

Edozein erosketa egin aurretik, ezinbestekoa izango da epe labur eta ertaineko programea eginda izatea.

Eskuratze-politikeari eta egin beharreko eskuratzeei buruzko azken erabagia, edozelan be, Bizkaiko Batzar Nagusietako organo eskudunak hartuko dau.

Halanda be, aldi baterako erakusketen esparruan, esleipendunari jagoko ondasunak maileguan onartzea edo ez onartzea. Onartzen baditu, berea eta ez beste inorena izango da erantzukizuna.

b) Informazinoa bilatu barik jaso bada. Interesdunek aurkezten dituen eskaintzak Bizkaiko Batzar Nagusietara bialdu beharko dira, bertan aztertu eta izapidetzeko. Epemugea daben eskaintzak, ahal dan neurrian, multzoka sailkatu beharko dira eta ahalik eta lasterren jakinarazo beharko jakez Batzar Nagusiei. Batzar Nagusiek hartuko dabe azken erabagia, holan baderitxe, bidezko txosten tekniko eta ekonomikoak jaso ondoren.

5. MUSEOAREN ZABALKUNDEA ETA SUSTAPENA. KOORDINAZINOA BATZAR NAGUSIAKAZ

5.1- ZABALKUNDEA

Esleipendunak Museoaren zabalkundea egiteko proposatzen dauen jarduerarik egin baino lehen (erakusketak, kultura-jarduerak oro har, mahai-inguruak, hitzaldiak, jardunaldiak, tailerrak, monografiak argitaratzea, katalogoak eta abar), proiektu zehatza eta osoa aurreratu beharko jako Bizkaiko Batzar Nagusietako organo eskudunari, eta organo horrek, hala bajagoko, proiektua onartzeko izapideak egingo ditu.

Museoaren zabalkundea eta sustapena egiteko jarduera guztietan agertu beharko dira Museoaren eta Bizkaiko Batzar Nagusien logotipoak.

Museoko bildumako objektuak beste erakunde, museo, partikular eta abarri aldi baterako mailegatu ahal izateko, Batzar Nagusien baimena beharko da aldez aurretik. Gauza bera gertatuko da museoaren irudiak edo funtsak erabili nahi diranean.

5.2- SUSTAPENA

5.2.1- Hartu-emonak komunikabideakaz. Batzar Nagusiek, Lehendakariaren bitartez, komunikabideakaz hartu-emonak izango ditue, Museoaren eta erakusketa-aretoaren zabalkundea eta sustapena egiteko.

Esleipendunak, behar besteko aurrerapenaz, planifikautako jarduerak egitea proposatu ahal izango dau, eta horreek gauzatzen lagundu ahal izango dau, esaterako publizidadea, hitzaldiak, alkarrizketak, prentsaurrekoak, eta abar. Horretarako, jagokon programea aurkeztu beharko dau, eta Batzar Nagusiek nahitaez onartu beharko dabe, gauzatu aurretik.

5.2.2- Hartu-emonak beste erakunde batzuekaz

Hartu-emon horreek aldez aurretik proposatu behar jakoz Batzar Nagusietako Lehendakariari, nahitaez, eta dana dalako erakundearen ordezkaria nor dan eta ze maila daukan zehaztu beharko dira, bai eta ze erakunde ordezkatzen dauen be.

6. JENTEARI ARRETA EMOTEKO ORDUTEGIA

Museoa ustiatzeko proposatzen diran ordutegiak zehaztuko dira proiektuan, bai jentearentzat edegita egoteari jagokonez, bai barruko lanaldiari jagokonez. Kontuan izan behar da esleipendunak astean 40 orduz emon beharko dituala zerbitzuak, egokitzat joten dituan baliabide tekniko eta personalen bitartez. Edozelan be, bermatu beharko dau, gitxienez, behar besteko behargin-zuzkidurea egongo dala, berak kontratauta eta bere zerbitzura, agiri honetako zazpigarren klausulan zehaztutako kopuruen eta kualifikazinoen eduan.

Museoa, gitxienez, jarraian zehaztuko dan ordutegian egongo da edegita jentearentzat. Halanda be, Bizkaiko Batzar Nagusiek ordutegia aldatu ahal izango dabe, bertaratzen diran personen arabera eta aldaketak edo hobekuntzak egitea eskatuko leukien beste faktore batzuen arabera.

Udako ordutegia (garagarrilaren 15etik irailaren 15era):

- Martitzenetik zapatura: goizez, 10:00etatik 14:00etara, eta, arrastiz, 17:00etatik 19:00etara.

- Domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 14:00etara.

- Astelehenetan, zarratuta egongo da.

Neguko ordutegia (urteko ganerako egunak):

- Martitzenetik zapatura: goizez, 10:00etatik 14:00etara, eta, arrastiz, 16:00etatik 18:00etara.

- Domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 14:00etara.

- Astelehenetan, zarratuta egongo da.

Jentearentzat edegita egongo dan ordutegiei eta beharrean egon behar diran beharginei jagokenez, kontuan hartu beharko da, zerbitzua behar bezala planifiketako, hilabete batzuetan bisitari gehiago joan leitekela.

Ustiapen-proiektuan proposatzen diran ganerako jardueretarako, jagokon egutegia eta ordutegia ezarriko dira, beti be, arestian zehaztutako ordutegia errespetatuz.

7. MUSEOKO BEHARGINAK

7.1- Museoaren zerbitzura dagoan plantilla museoaren dimensinoaren eta urte osoan garatzen diran zerbitzu eta jardueren araberako beharretara egokituko da. Museoa antolatzen eta ustiatzen dauen gizataldeak, zuzendaria buru dauela, esperientzia eta ezagutza museologiko espezifikoak izan beharko ditu, eta kultura-esparru, -foro eta -zirkuitu historikoetan eta gaurkotasunekoetan sartuta egon beharko dau, kultura-foku bizia eta dinamikoa lortzeko.

Halanda ze, kontratetan dan zerbitzua, gitxienez, 40 orduz emon beharko da astean, Museoak euki beharko dituan beharginen bidez. Gitxienez, sei beharginek osatuko dabe lantaldea:

- Historiako, Artearen Historiako edo Arte Ederretako goi-mailako titulua edo titulazino baliokidea daukan persona bat, esperientzia handikoa, Museoaren Zuzendaritza bere gain hartuko dauena. Enkarterriko eskualdeari buruzko ezagutza handia izan beharko

dau, bai eta izaera historikoko ikerketa-proiektuetan esperientzia egiaztatua be. 40 ordu astean.

- Historiako, Artearen Historiako edo Arte Ederretako goi-mailako titulua edo titulazino baliokidea daukan persona bat, didaktikaren eta zabalkundearen ardurea hartuko dauena. Didaktikaren arloan esperientzia izan beharko dau, eta Museoko jarduera pedagogikoen programea garatzeaz arduratuko da, bai eta Museoan bertan eta inguruko lekuetan garatu beharreko antzeko beste jarduera batzuk egiteaz be. 40 ordu astean.

- Historiako, Artearen Historiako edo Arte Ederretako goi-mailako titulua edo titulazino baliokidea daben bi persona, didaktikaren eta zabalkundearen arlorako plantillan egongo diranak eta Museoko beste arlo batzuetan be lagunduko dabenak. 20 ordu personako.

- Historiako, Artearen Historiako, Arte Ederretako titulazinoa edo titulazino baliokidea daukan persona bat astean 20 orduz, administrazinoko, dokumentazinoko eta artxibo historikoko lanak bere gain hartuko dituana.

- Bisitei harrera egiteaz arduratuko dan behargin bat, jagokozan arloko lanetan ibiliko dana, Museoko ganerako beharginakaz lankidetzan (zabalkundea*, mailingak*, etab.). 14 ordu astean.

7.2- Museoko beharginek Enkarterriko historiari eta kulturari buruz daben ezagutza **balorauko da**, eta agiri bidez egiaztatu beharko da.

Era berean, behargin-zuzkidureari lotutako hobekuntzak daukiezan proposamenak **balorauko dira**, esaterako, eskatzen dan gitxieneko behargin-kopurua handitzen dabenak.

7.3- Gaitasun-baldintzak zehaztea

Lizitatzaileek eskaintzan zehaztu beharko ditue kontratua beteteko bideratuko dabezan beharginen izenak eta lanbide-prestakuntza; horretarako, curriculum vitaea erantsi beharko dabe.

Hori dala-eta, hasieran proposatutako beharginen edozein ordezkapen, behin betikoa edo behin-behinekoa izan, antzeko lanbide-kualifikazinoa daukan beste behargin batega egin beharko da, eta Bizkaiko Batzar Nagusien berariazko onespena izan beharko dau. Esleipendunak betebehar hori beteten ez badau, kontratua suntsiarazo ahal izango da, kontratua ez beteteagaitik.

7.4- Museoa jentearentzat edegita ez dagoan orduetan antolaketa-lanak egingo dira. Esleipendunak askatasuna izango dau lanak antolatzeko, baina, edozelan be, honako zeregin honeek beteten dirala bermatuko dau: administrazino-eginkizunak, aldi baterako erakusketak prestatzea eta muntatzea, mantentze-lanak, Museoan eta bere euskarrietan ikusgai dagozan edukiak garbitzea eta ustiatzeko beharrezkoak diran ganerako zeregin guztiak. Hori guztia, jentearentzat edegita dagoan ordutegian emendiorik onena emotearren, eta ezingo da, ezelan be, interferentziarik egon lan horreek egitearen eta Museoko ateak edegiteko ordutegiaren artean.

7.5.- Museoaren zerbitzura dagozan beharginak esleipendunaren mende egongo dira bakar-bakarrik, eta Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe eurekaz lan-hartuemonik izango, ez eta bestelako hartuemonik be.

7.6- Esleipendunaren erantzukizuna izango da bere lan-betebeharrak, Gizarte Segurantzagazkoak eta lan-arriskuen prebentziokoak betetea, bai eta aitatutako beharginei lotutako beste edozein betebehar be, eta ezin izango da ezelako erantzukizunik geratu Bizkaiko Batzar Nagusien ganean.

7.7.- Esleipendunak zerbitzua emoteko behar diran baliabide materialak emongo deutsez Museoari atxikita dagozan beharginei, esaterako, arropak, kontrol- eta komunikazino-bitartekoak eta bestelakoak.

7.8.- Gaixotasunagaitik edo beste edozein gertakizunegaitik baja hartu behar izan ezkero, esleipendunak beharrezko neurriak hartuko ditu kargura daukazan beharginak bere pentzura ordezteko. Arestian zehaztutako behargin-zuzkidurea gitxienekotzat eta beharrezkotzat joko da, kontratuak irauten dauen bitartean estalita egon beharko dau, eta egoki diran neurri guztiak hartuko ditu, beti be, bere kontura. Ordezkapenak be jakinarazo beharko ditu, Batzar Nagusiek onartu daiezan.

8. BATZAR NAGUSIEN ETA ESLEIPENDUNAREN KONTURAKO GASTUAK

8.1- Printzipio orokorra: banaketa-erespidea

Bizkaiko Batzar Nagusiek, esleipen-prezioaren arabera, Museoa modu egokian antolatzeko, arretea emoteko eta ustiatzeko beharrezkoak diran jarduera eta zerbitzu guztien betearazpena kontratetan dabe, bai eta zabalkunde-, heziketa- eta gizarte-arloko zeregina eta ondarea konserbau, konpondu eta handitzeko zeregina betetean sortutako gastuak be.

Ondorioz, zerbitzu edo jarduera horreen barruan sartzen dira kontratua osorik betearazteko behar diran guztiak, baldintza-agiri honetan deskribatutako helburu eta jarduketen arabera, eta esleipendun suertetan danak eskaini beharko dau hori, beti be, halan bajagoko, Bizkaiko Batzar Nagusiek egokitzat joten dituen aldaketak kontuan hartuta.

Hori dala-ta, eta kontuan hartuta kontratua kontratistearen arrisku eta menturearen menpe betearazoko dala, esleipendunaren kontura izango dira, modu bakar eta esklusiboan, Museoa antolatzeak, arretea emoteak, erakusketak egiteak eta ustiatzeak eragindako gastu guztiak, bai eta ondarea zaindu, konpondu eta handitzeak eta haren zabalkundea egiteak eragiten dituenak be.

Aurreko paragrafoetan ezarritako printzipio orokorretik salbuetsita dagoz, bakar-bakarrik, jarraian zerrenda itxi lez edo “numerus clausus” lez zerrendatzen diran gastuak.

8.2- Bizkaiko Batzar Nagusien konturako gastuak

Jarraian zerrendatzen diran gastuak baino ez dira izango Bizkaiko Batzar Nagusien kontura. Edozelan be, ordainketea egiteko, Batzar Nagusietako organo eskudunak berariaz eta aldez aurretik onartu beharko dau jagokon gastua. Horretarako, aurrekontua aurkeztu beharko da onartua izateko, halan bajagoko.

Onartutako aurrekontuan jasotako prestazinoak jagokon fakturea aurkeztu ostean ordainduko dira, Museoaren zuzendariaren eta enpresa esleipendunaren oneretxiagaz eta euren erantzukizun solidarioaren menpe.

<u>Batzar Nagusien kontura joango diran gastuen zerrendea ("zerrenda itxia"):</u>

a. Museoaren eraikinak sortutako gastu arruntak, hau da, garbiketa orokorra, argia, berokuntzea, ura eta telefonoa.

Era berean, eraikinaren mantentze orokorrari jagokozan gastuak eta Museoaren esparruan dagozan lorategien mantentze-lanei jagokezanak Batzar Nagusien kontura izango dira.

b. Papergintzako gastuak, horren barruan izanik, modu esklusiboan, Museoko paper ofiziala eta gutun-azalak.

c. Enpresa esleipendunak proposatzen dituan eta interesgarritzat hartzen diran interes kulturaleko ondasunen erosketak, Museoaren funtsak osotzeko erabiliko diranak, Bizkaiko Batzar Nagusien kontura izango dira, beti be, Batzar Nagusiek aldez aurreko eta berariazko baimena emonda, organo eskudunaren bitartez.

d. Esleipendunak Museoaren azpiegitura iraunkorrean txertatu beharreko elementuak eskuratzeko eta barritzeko proposamena egin ahal izango deutse Batzar Nagusiei, beti be elementu horreek ez badagoz ustiapenagaz lotuta, baizik eta bien ekipamendu finkoagaz. Eskaerea jaso ostean, Batzar Nagusiek kasu zehatz bakotxa ebatziko dabe.

e. Museoak urtean birritan egiten dituan aldi baterako erakusketak eta jarduera didaktikoak diseinetako eta montetako beharrezkoak diran jarduketa guztien kostu osoa, gitxienez eta nahitaez Kudeaketa Programan sartutakoak, **esleipendunaren kontura izango da**, hurrengo apartatuan xedatutakoa izan ezik, hori Batzar Nagusien kontura izango da eta.

f. Batzar Nagusien kontura izango dira erakusketetako altzariei jagokezan gastuak, altzaritzat hartuta erakusketak egiteko behar diran egiturak, bai eta Museoaren zabalkunderako eta sustapenerako liburuxka, katalogo, liburu, kartel eta enparaduko argitalpenen publizidade-, prestaketa-, edizino- eta banaketa-kanpainakaz lotutakoak be. Testuen itzulpenak, baita aldi baterako erakusketenak be, Bizkaiko Batzar Nagusien kontura izango dira, baldin eta Batzar Nagusiak arduratzen badira testu horreen edizino-lanakaz, beti be, testuok egin aurretik, Batzar Nagusiek eurek berariaz eta aldez aurretik onartu baditue. Esleipendunak jagokon proposamena aurkeztu beharko dau, eta hedapen- eta sustapen-prozesu osoaren koordinazinoaz, jarraipenaz, kontrolaz eta hobekuntzaz arduratuko da.

g. Esleipendunek ezin izango dabe ezelako diru-sarrerarik jaso enparaduko laguntza edo dirulaguntzengaitik, esponsorizazinoengaitik, erakusketak merkaturatzeagaitik edo Museoaren beste zerbitzu batzuk saltzeagaitik, Batzar Nagusiek berariazko baimena emon ezean. Era berean, argitalpenak doan zabalduko dira, eta Batzar Nagusien aldez aurreko baimenagaz baino ezin izango dira salgai ipini, kontratuaren arduradunak horretarako emoten dituan jarraibideak betez.

8.3- Ondasunak itzultzea

Kontratua amaitzean, esleipendunak Batzar Nagusiei entregau beharko deutsez kontratuaren arabera zehaztuta dagozan ondasun higigarri edo higiezin guztiak, materialak edo immaterialak; besteak beste, objektuen bildumak, liburuak eta dokumentuak, instalazinoak, sortutako posta-trukea eta dokumentazinoa (paperean

zein beste edozein euskarritan), danak be konserbauta eta funtzionamenduan. Batzar Nagusiei jagokez Museoaren ondarea konpontzeko, konserbetako eta handitzeko lanen ganeko eskubide guztiak, jabetza intelektualekoak barne, bai eta kontratuaren xede diran zabalkunde-eskubideak be.

9. HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILEREA

9.1- Museoak kanpoaldeagaz izango dituan harremanak (bisitariak, herritarrak, ikastetxeak, erakunde publiko eta pribatuak eta abar), idatziz zein ahoz, euskeraz eta gaztelaniaz izango dira. Edozelan be, Museoan eta Erakusketa Aretoan eskainitako zerbitzua hizkuntza bietan emongo dala bermatu beharko da. Esleipendunak horretarako behar diran neurriak hartuko ditu.

9.2- Museoaren argitalpenak, dokumentuak eta posta-trukeak elebidunak izango dira. Era berean, bai bisita gidatuetan, bai Museoko langileek bisitariakaz daukiezan hartu-emonetan, euskerea eta gaztelania bardin erabiliko dirala bermatuko da.

Museoaren argitalpenak eta enparaduko dokumentuak, beti be argitaratu aurretik, Bizkaiko Batzar Nagusietako Zerbitzu Teknikoek gainbegiratuko ditue, eta bialdu egin beharko jakez horretarako.

9.3- Bisitetan eta jarduera batzuetan, bereziki jarduera pedagogikoetan, beste hizkuntza batzuk erabiltea **balorauko da**, batez be ingelesa.

Horretarako, agiri bidez egiaztatu beharko da jarduera horreek egiteaz arduratuko diran beharginen titulazinoa.

10. URTEKO KUDEAKETA-TXOSTENA

Esleipendunak, gitxienez, Museoaren ustiapenari buruzko urteko txosten bat aurkeztuko deutse Bizkaiko Batzar Nagusiei, gai honeen ganeko xehetasunak emoteko:

- Aurreko hiruhilekoan egindako jarduerak eta hasitako hiruhilekorako aurreikusitakoak.
- Bisitari-kopuruari eta euren gitxi gorabeherako jatorri geografiko eta sektorialari buruzko datu estatistikoak, bai eta datuon analisia be (bisita gehiago edo gitxiago izan diran, horren arrazoiak, ze kolektibogaz egon diran hartu-emonetan, lortutako emoitzak eta abar).
- Egindako zabalkunde-lanaren emoitza.

- Ustiapenean egindako hobekuntzak eta horreen ondorioz lortu diran emoitzak.

- Batzar Nagusiei zuzendutako proposamenak.

11. ABELLANEDAKO MUSEOAREN ETA BATZAR-ETXEAREN ERAIKINAK ETA ERAKUSKETA-ARETOAREN GUNEAK ZAINTZEA ETA KONSERBETEA

Esleipenduna eraikinen eta instalazinoen mantentze-lan orokorraz arduratuko da, eta beharrezkoa dan arretea erabiliko dau horretarako. Ganera, edozein kalte jazoten bada, berehala horren barri emon beharko deutse Batzar Nagusiei.